

## M.U. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren VI.Astean

2007/11/08

Mondragon Unibertsitatea, Garaia Poloa, Ikerlan Teknologi Zentroa, AOTEK, Fagor Automationen I+G unitatea eta Mondragon Korporazio Kooperatibak zenbait jarduera antolatu dituzte Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Astearen inguruan.

Eusko Jaurlaritzaren 2010 Lehiakortasun Planaren enpresaren etorkizuna eta euskal gizartearen aurrerapenaren gakoa izango den berrikuntzari lorturik dauden baloreak sustatu nahi dituzte erakunde desberdin hauek.

Horretarako, azaroaren 5etik 11ra bitartean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren sozializazioa helburu izango dituzten hainbat jarduera antolatu dituzte Garaia Berrikuntza Poloan. Era berean, ekimen honek, Mondragon inguruko ikerketa agenteek garatzen dituzten jarduera zientifikoaren edukia ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek.

Egun hauetan zehar, MCCko Zientzia eta Teknologia Planaren inguruan jardungo duten ekimen desberdinak eskainiko dira. Besteak beste, Ikerlan-IK4 Ikerketa Teknologikoen Zentrora antolatu diren bisita gidatuak, Mondragon Unibertsitateko laborategietarako erakusketa erako bisita gidatuak, Garaia Berrikuntza Polorako Bisita Gidatuak eta MCCko zenbait enpresetarako bisita gidatuak burutuko dira.

Horrez gain, azaroaren 6, 8, 10 eta 11n, zine zientifikoaren inguruko zenbait film eta dokumentalak eskainiko dira Garaia Auditorioan. 6 eta 8ko zine emanaldiak arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean izango dira. Egun hauetan zehar honako dokumentalen emanaldiak eskainiko dira: 'El sentido del deslizamiento', 'Las últimas hoces', eta 'Los padres del suelo', eta osteguna, 8an, Garaia Auditoriora hurbiltzen direnek, beste honako filmetaz gozatzeko aukera izango dute: 'Aprendiendo el juego de la vida', 'El jardín viviente, ocultos bajo el suelo', eta 'Las aventuras de Troncho y Moncho'.

Asteburuan zehar, 10 eta 11n, Garaia Auditorioan eskainiko diren proiektzioak goizeko 11:00etatik 13:00era bitartean izango dira. Larunbata, 10ean honako film hauek eskainiko dira: 'Fisicos Forenses: científicos y detectives', 'Los límites del espacio', 'Terremotos', eta 'I want to be a pilot', eta igandea, 11n, beste film hauek izango dira ikusgai: 'Calentamiento global, un problema del tamaño del planeta', 'Los misterios de la electricidad' eta 'Sinfonía Celular'. Garaia Berrikuntza Gunera bertaratzen direnak segway-ean bisita gidatu bat egiteko aukera izango dute.

